

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Iruraiz-Gauna udal-mugartean dagoen Trokoniz herritik (SAUR-1 izan ezik) datozen hondakin-urak isurtzeko baimena berrikustea

Espediente-zenbakia: VDP-A-2016-0026

Eskatzailea: Trokonizko Administrazio-Batzarra.

Trokonizko administrazio-batzarrak Uraren Euskal Agentziari eskatu dio Trokoniz herritik (SAUR-1 izan ezik) datozen hondakin-urak isurtzeko baimena berrikusteko. Horretarako, dokumentazio egokia aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Iruraiz-Gaunako Alkatetzan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGIRRE ORCAJO